

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*52/2013 FORU AGINDUA, urtarrilaren 24koa, Jokoaren gaineko Zerga (Bingo Elektronikoa) autolikidatzeko 40E onartu eta horren aurkezpen eta ordainketarako prozedura arautzen duena.*

2012ko uztailaren 27ko 37/2012 Foru Dekretu Arauak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituenak, Jokoaren gaineko Zergan bingo elektronikokoaren modalitatearen tributazioa arautu zuen lehen aldiz.

Modalitate horren izena bingoa izan arren, ez dute elkarren antzik tributazioari dagokionez, eta, beraz, beharrezkoa da joko modalitate horren autolikidazioa aurkezteko eredu berri bat arautzea.

Helburu horri begira, Jokoaren gaineko Zerga (Bingo Elektronikoa) autolikidatzeko 40E eredu onartzen da.

Gipuzkoako Jokoaren gaineko Zergaren otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak 16. artikularen lehen apartatuan dioenez, Jokoaren gaineko Zergaren modalitate desberdinetako aitorpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak kasu bakoitzerako finkatzen dituen toki, modu eta epeetan aurkezteko behar dira.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 40E eredu onartzea.*

Jokoaren gaineko Zerga (Bingo Elektronikoa) autolikidatzeko 40E eredu (Bingo Elektronikoa) onartzen da, eta foru agindu honen eranskinean jasota ageri da.

Bi ale ditu ereduak, Administrazioaren alea eta interesdunarena.

*2. artikulua. 40E eredu aurkeztera behartuak.*

40E eredu aurkeztu behar dute bingo elektronikokoaren joko ustiatzeko baimen administratiboaren titularrak diren pertsonak edo entitateak eta, hala badagokio, joko haren kudeaketa beren kargura duten zerbitzu sozietateak.

Era berean, 40E eredu aurkeztu beharko dute bingo elektronikokoaren joko baimen administratiborik gabe edo ustiapen baimenik gabe antolatu edo egiten duten pertsonak edo entitateak.

*3. artikulua. Aurkeztu edo ordaintzeko moduak.*

40E eredu elektronikoki bidalita aurkeztu behar da. Horretarako, jarraitu beharko zaio 2010eko azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 3. artikuluan ezarritako prozedurari.

**DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

*ORDEN FORAL 52/2013, de 24 de enero, por la que se aprueba el modelo 40E de autoliquidación del Tributo sobre el Juego, Bingo Electrónico, y se regula el procedimiento para su presentación e ingreso.*

El Decreto Foral-Norma 3/2012, de 27 de julio, por el que se modifican el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, el Impuesto sobre el Valor Añadido, los Impuestos Especiales y el Tributo sobre el Juego, reguló por primera vez la tributación, en el Tributo sobre el Juego, de la modalidad bingo electrónico.

Esta modalidad, si bien se denomina bingo, no se asemeja en absoluto a éste en cuanto a tributación se refiere, con lo que resulta necesaria la regulación de un nuevo modelo para la presentación de la autoliquidación correspondiente a esta modalidad de juego.

Con este objeto se procede a la aprobación del modelo 40E, de autoliquidación del Tributo sobre el Juego, Bingo Electrónico.

El apartado Uno del artículo 16 de la Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece que, para la presentación de las diferentes modalidades del Tributo sobre el Juego, presentarán las declaraciones correspondientes en los lugares, formas y plazos que fije, para cada caso, la Diputada o Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 40E.*

Se aprueba el modelo 40E de autoliquidación del Tributo sobre el Juego, Bingo Electrónico, que se adjunta como anexo a la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 40E.*

Están obligados a presentar el modelo 40E las personas o entidades titulares de autorizaciones administrativas para explotar el juego del bingo electrónico y, en su caso, las sociedades de servicios que tengan a su cargo la gestión del mismo.

Asimismo, estarán obligados a presentar el modelo 40E las personas o entidades que organicen o celebren el juego del bingo electrónico en defecto de autorización administrativa o permiso de explotación.

*Artículo 3. Formas de presentación e ingreso.*

El modelo 40E deberá presentarse a través de transmisión electrónica, siguiendo el procedimiento previsto en el artículo 3 de la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

*4. artikulua. Aurkezteko epea.*

Autolikidazioak aurkezteko, dena delako hiruhilabeteko likidazio aldia amaitu ondorengo hilaren lehen 25 egun naturaleko epea egongo da.

*5. artikulua. Ordaintzeko modua.*

40E ereduaren aurkezpenetik eratorritako ordainketak bankuan helbideratu behar dira. Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzko abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak zergak biltzeko baimentzen dituen entitate laguntzailetako batean egingo da helbideratzea (bankua, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatiba).

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2012ko laugarren hiruhilekoari eta ondorengoei dagozkien autolikidazioen aurkezpenari aplikatuko zaio lehen aldiz.

Donostia, 2013ko urtarrilaren 24a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(946)

(873)

*Artículo 4. Plazo de presentación.*

Las autoliquidaciones se presentarán dentro de los 25 primeros días naturales del mes siguiente a la finalización del período de liquidación trimestral correspondiente.

*Artículo 5. Forma de Ingreso.*

Los ingresos derivados de la presentación del modelo 40E se efectuarán mediante domiciliación bancaria, que deberá hacerse en una entidad colaboradora para la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito), autorizada en los términos del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

*Disposición Final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes al cuarto trimestre del 2012 y posteriores.

San Sebastián, a 24 de enero de 2013.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(946)

(873)

